

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 42/2022 Erabakia, otsailaren 1ekoa. Onespena ematea Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko gauzako laguntzen 2022ko deialdiari

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 27ko 32/2017 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zitzaien Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko "Gauzako laguntzak" modalitateko laguntzak emateko oinarri arautzaileei. Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 12ko 12/2018 Foru Dekretuak aldatu zuen dekretu hori.

Foru Dekretu horretan ezarri ziren Arabako Lurralde Historikoko zein zona eta azpizonatan jardungo den aldi berean eta zein hurrenkera jarraitu behar zen Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko gauzako laguntzen deialdi bakoitzean.

Jarduketa plana hiru zonetako 6 zenbakiko azpizonan hasi zen 2017ko deialdian, eta 2018., 2019., 2020. eta 2021. urteetako deialdietan hiru zonetako 1, 2, 3 eta 4 zenbakiko azpizonak egin ziren, hurrenez hurren.

Ezarritako ordenari jarraituz, 2022an 3 zonetako 5 zenbakiko azpizonetan jardun behar da.

1 zona, 5 azpizona: Samaniego, Bastida eta Eltziegoko Udalak.

2 zona, 5 azpizona: Aguraingo Udala eta Iruraiz-Gaunako Udaleko erakundeak.

3 zona, 5 azpizona: Armiñongo, Erribera Beitiko, Berantevillako eta Zambranako udalak.

7. artikulua arabera, urtero onetsiko da kasuan kasuko laguntza deialdia, eta bertan, jarduketa azpizonez gain, hauek ere sartuko dira: eskaerak aurkezteko epea eta lekua, dirulaguntza egotzita duen aurrekontu kreditua eta, hala behar izanez gero, espedienteak sailkatzeko irizpide objektiboak, eskaerak aurkezteko inprimaki normalizatua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta dirulaguntzaren gutxieneko edo gehienezko zenbateko baliokidea.

Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako gastuen aurrekontuan bada kreditua gauzako laguntza horietarako; hain zuzen ere, 40101. G/4594000/65000402 "Landa bideak kontserbatzeko obrak" partidan. Hortaz, horien deialdia onetsi eta urte horretako jardun eremu geografikoa finkatu behar da.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea gauzako laguntzen deialdia, 2022an Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko. Hona hemen zehaztatsunak:

Jarduteko eremu geografikoa: 3 zonetako 5 zenbakiko azpizonak, akordio honen I. eranskien arabera.

— Eskaerak aurkezteko epea eta lekua:

— Eskaerak aurkezteko lekua:

Eskaerak elektronikoki aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoen bidez.

– Aurkezteko epea: 15 egun baliodun, erabaki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

– Dirulaguntza egotzita den aurrekontu kreditua: 450.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2022rako gastu aurrekontuko 40101. G/4594000/65000402 “Landa bideak kontserbatzeko obrak” partidaren kontura.

– Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa:

Erakunde bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ezarri da, erakunde bakoitzari dagozkion eta Arabako Foru Aldundiaren Bide Erregistroan sartuta dauden bideen luzeraren arabera, honako tarte hauekin:

BIDEEN LUZERA, ERAKUNDEKO (KILOMETROAK) (KM)	GEHIENEO ZENBATEKOA, ERAKUNDEKO (€)
0 - 20 km	20.000,00
20 km BAINO GEHIAGO - 40 km	40.000,00
40 km BAINO GEHIAGO - 60 km	60.000,00
60 km BAINO GEHIAGO	80.000,00

– Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak: deialdi honetan, oinarri arautzaileen 6. artikuluan jasotzen dira dirulaguntzak emateko irizpideak.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE



I ERANSKINA

2022EKO DEIALDIKO JARDUKETA AZPIZONAK

1 ZONA – 5 AZPIZONA		
UDALERRIA/ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (km)
SAMANIEGO	GUARDIA - ARABAKO ERRIOXA	34,16
SAMANIEGOKO UDALA		34,16

BASTIDA	GUARDIA - ARABAKO ERRIOXA	70,26
BASTIDAKO UDALA		60,13
GATZAGA BURADONGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,13

ELTZIEGO	GUARDIA - ARABAKO ERRIOXA	46,65
ELTZIEGOKO UDALA		46,65

2 ZONA – 5 AZPIZONA		
UDALERRIA/ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (km)
AGURAINGO UDALA	ARABAKO LAUTADA	56,75

IRURAIZ-GAUNA	ARABAKO LAUTADA	102,86
AZILUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,35
ALAITZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,83
ARRIETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,80
ERENTXUNGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		15,91
EZKEREKOTXAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		14,55
GAUNAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		13,88
GAZEOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,37
GEREÑUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,22
JAUREGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,16
LANGARIKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		15,05
TROKONIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,74

**3 ZONA – 5 AZPIZONA**

UDALERRIA/ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (km)
ARMIÑON	AÑANA	33,25
ARMIÑONGO UDALA		5,18
ARMIÑONGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,55
ESTAVILLOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		17,52

ERRIBERA BEITIA	AÑANA	53,31
IGAIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,73
MANZANOSKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,15
MELLEDESKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,80
QUINTANILLA ERRIBERABEITIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,2
RIBABELLOSAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		15,31
RIBAGUDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,12

BERANTEVILLA	AÑANA	65,35
BERANTEVILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		22,56
LACERVILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		14,60
MIJANCASKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,31
SANTA CRUZ DEL FIERROKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,52
SANTURDEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,14
TOBERAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,22

ZAMBRANA	AÑANA	42,51
BERGANZOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,70
OZIOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		9,82
ZABALATEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,84
ZAMBRANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		20,15